

# **BERMEOKO UDALARENTZAKO EGINDAKO BORONDATEZKO LANAK ARAUTZEKO ORDENANTZA.**

## **HITZAURREA**

Udalak bere helburuak lortzeko jardunean, sarritan, funtzionari edo lan harremanagaz lotutako langileez baliatuz, burutu ezinak diran zereginak aurkitzen da. Honen arrazoa, zereginen euren izaeran aurkitzen da, noizbehinkakoak eta ekintza zehatz batez gain amaitzen diranak batzuk, eta besteak, epe jakinetan errepikatu arren, entitate txikikoak eta ia dedikaziorik eskatzen ez dabenak, diran ezker.

Lan edo zeregin honeek, Martxoaren 10eko 8/1990, Langileen Estatutoaren Legeak araututako lan harremanetik kanpora aurkitzen dira, jurisprudentziak behin eta berriz aldarrikatu dauan modura, harreman honeetan beharrezkoa dan menpekotasunaren ezaugarriak, hau da, enpresaren antolamendu eremuan aurkitzea bere aginduetara egotea, diziplina araupean eta egutegi eta ordutegi jakin batetara lotuta egotea, emoten ez diralako.

Mota honetako zereginak daukaguz, beste batzuren artean, Udaletxeko eta Eupeme Deuna elizako erlojuen mantenua, Arratzuko ur biltegiaren mantenua, Lamerako komun zainketa, Mañuko hilerriaren lurperaketa, jai eta kultura ekintza desberdinetan materialen dezamaketa eta abar.

Kasu guzti honeetan, lanaren trukez ordain sari bat emon arren, ezin daiteke esan soldata baten aurrean aurkitzen garanik, esan bezala, lan harremana ez dalako, eta bestetik, alokatze zerbitzu bat ere ez denez, zereginak, lanbide baten xede ez diralako, mota honetako ordainik ere ez da. Harreman zibil bat dogu, eta ordaindutako diru kopurua sari edo eskupeko legez ulertu behar da.

Beste alde batetik, sarritan, herritarrak, Udalaren interes orokorreko jardunetan, adibidez, gizarte laguntza zerbitzuak, hirugarren adina, kultura, kirol eta jai ekintzak, borondatez eta dohainik euren laguntza eskeintzera urreratzen dira, zenbait kasuetan profesiodun gazteek, euren ikasketak hobetzeko ere aprobetxatzen dabelarik. Honelako egoerak ere jagoken eremu juridikoan kokatu beharra dago, ondorio larriak izan daitezkeen txarto ulertzeetan ez erortzeko.

Jurisprudentziak, berak ere, egoera honeek onartu izan dauz, besteak beste "Tribunal Central de Trabajo" dalakoaren 1981.eko Irailaren 30eko erabakia, 1980.eko Martxoaren 3ko, 1980.eko Apirilaren 17ko, 1987.eko Abenduaren 16, 1983.eko Urtarrilak 4 eta Otsailaren 26ko erabakiak, guztiak, gure kasuek antzerakotasuna eukinak, eta laboral gisako harremanetik at aldarrikatzen dauzanak.

Harreman honeen kokapen juridikoa erraza ez bada ere, esan daiteke, kontratu atipiko batzuren aurrean aurkitzen garala, hau da, legezko erregulaziorik bat ez daukenak. Hala ere, Kode Zibilaren 1258. artikulua dabe aplikagarri eta

honen ondorioz, alde bien arteko paktu, eta honen orde z ohiturak, lege dispositiboak, aplikatuko dira, asmo onaz aparte.

Lan honeek oinarritu daitezke ere, Langileen Estatutoaren 1.3.d) artikuloko, borondatezkoen artean, "Tribunal Central de Trabajo" dalakoak 1981.eko Urriaren 30eko erabakian esan bezala, nohizbehinkakotasun ezaugarria, zalantza barik emoteaz gain, herritarren jarrera onari esker gertatzen diralako.

Supuesto honeek arautzeko eta, batez ere, antzerakoetatik desbardintzeko beharrezkoa egiten da ordenantza hau onartzea.

## **AURKIBIDEA**

**\* Hitzaurrea.**

**\* 1. Artikulua. XEDEA.**

**\* 2. Artikulua. ERREJIMEN JURIDIKOA.**

**\* 3. Artikulua. ESKUMENA.**

**\* 4. Artikulua. KONTRATOAREN FORMA.**

**\* 5. Artikulua. ESKUBIDE ETA OBLIGAZIOAK.**

**\* BEHIN BEHINEKO XEDAPENA.**

### **1. artikulua. XEDEA**

1.- Ordenantza honen xedea da, nohizbehinkako edo eta ekintza zehatz batez gatz amaitzen dil-an zeregin edo lanak arautzea. Honeen artean aurkitzen dira:

- a) Udaletxe eta Eupeme Deuna elizako erlojuen mantenua.
- b) Arratzuko Ur Biltegiaren mantenua.
- c) Lamerako komunen zainketa.
- d) Mañuko hilerriaren lurperaketa.
- e) Kultura jai eta kirol ekintzetan materialen hustuketa
- f) Antzerako guztiak.

2. - Ordenantza honen xede dira ere, borondatez eta dohainik egindako edozein lan edo Udal zerbitzuei eskeinitako laguntza.

Ordenantza honetatik kanpora geratzen dira funtzionari eta lan harreman guztiak, Estatuko Administrazioaren kontratazio legediaren barneko supuesto guztiak eta legezko prestazio pertsonalak.

## **2.artikuloa. ERREJIMEN JURIDIKOA.**

Ordenantza honen barneko lanak, izaera zibila dauke, eta Udalaren eta egilearen arteko borondate adostasunean oinarritzen dira, kontratuak atipiko bezala definituz eta Kode Zibilaren menpe egonaz.

## **3.artikuloa. ESKUMENA.**

Lan honeek agindu eta kontratazeko kompetentzia Alkatetzari jagoko, beronek egin daitezkezan delegazioen kalte barik.

## **4.artikuloa. KONTRATOAREN FORMA.**

Ordenantza honen barneko harrernanak, bere aldikakotasunaren arabera, idatziz formaldu beharko dira edo ez dabe horren beharizanik izango. Honela:

a) Epe zehatzetan errepikatzen diran lanak xede legez daukiezanak, idatziz gauzatuko dira, hitzarmenean ondorengo puntuak finkatuz.

- Egilearen nortasuna.
- Egin beharreko lan edo zereginak.
- Sari edo eskupekorik jasoko badau bere kopurua.
- Harrermana amaitzeko epea.
- Edozein alderdik, harrernana amaitzeko epea baino lehen, aurrez ohartaraziz, batere obligazio barik, kontratoa mozteko izango dauan eskubidea.
- Lanak ordenantza honen barnean aurkitzen dirala, eta funtzionari edo laboral gisako harremana, Estatuko kontratazio legediaren supuesto bat eta beharrezko prestazio pertsonala suposatzen ez dabela.
- Sinaduraren tokia eta eguna.

b) Ekintza zehatz batez amaitzen diranak, ahozko eran.

## **5.artikuloa. ESKUBIDE ETA OBLIGAZIOAK.**

1.- Udalak ondorengo eskubide eta obligazioak izango dauz:

- a) Lana, hitzartu bezala jasotzea.
- b) Harremana edozein momentutan moztea.
- c) Horrela erabaki ezkerro, jagokon saria emotea.

Udalak inoiz ere ez dau izango lana egiten dauanaren gainean batere aginterik, ezta ere santzio ahalmenik, obligazioak ez betetzearen erantzunkizun zibilaren kalte barik.

2.- Egileak ondorengo .eskubide eta obligazioak izango dauz:

- a) Horrela erabaki ezkerro jagokon saria jasotzea.
- b) Harremanak edozein momentutan moztea.
- c) Lana hitzartu bezala burutzea.

### **BEHIN BEHINEKO XEDAPENA**

Ordenantza hau indarrean jartzen dan egunetik hiru hilabeteko epean, gaurko egunean Bermeoko Udalak daukazan, araudi honen menpe egon daitekezan harreman juridiko guztiak, berton esandakora egokitu beharko dira, horrela egingo ez balitz automatikoki moztuta geratuko liratekelarik.

**Bermeon, 1993.eko Apirilaren 7an.**

**IDAZKARIA**